



2.5 KANALAK

Bi kanal mota daude zeharkakoak eta zuzenak, hauen arteko desberdintasuna oso notorioa da, izan ere gure udalekuak kanal zuzen batekin erabiliko bagenitu guk lan bikoitza egin beharko genuke eta gainera garestiagoa aterako zitzaigun. Zeharkako kalanak erabiliko bagenitu merkeagoa aterako zitzaigun, baina hasiera batean lan handiago izango da, eta gainera ez genuke gure produktuaren kontrol totala edukiko, gauza batzuk adostu beharko genitu eta.

Zeharkako kanala erabiliko dugu,kanalak, guk (enpresak) ez dugu izango produktuaren kontrol totala ,izan ere, gure helburua Eusko Jaurlaritzari gure udalekuen proiektua eskeintzea izango da, beraiek udalekuak “saltzeko” edo eskeintzeko asmoarekin, horrekin suposatzen dugu gure proiektua

Komunikazio aldetik web orri bat egingo dugula eabaki dugu; gure informazio iturri guztiarekin. Gainera Eusko Jaurlaritzarekin aliantzak egingo ditugu gure udalekuak aurrera eramaten lagundu dezaten eta ezagunak bilakatzen. Horretarako, gure ideiak partekatuko ditugu eta gure udalekuak Gaintza herrian izango direla esan. Herri hori pixkanaka despulatzen ari dela aipatuko diegu eta gure udalekuen bitartez herriaren landen garapena ez dela galduko adierazi ere. Bi aldeak irabaziko dute, Eusko Jaurlaritzak landa garapena ez galtzea irabaziko luke eta guk berriz, bezeroen kopurua areagotzea.